# FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Funtsezkoak izango diren baliabideak hurrengoak dira. Hainbat gida izango ditugu, hizkuntza desberdinak menperatzen dituztenak. Gidek oso rol garrantzitsua jokatuko dute, gure herriko historiaren ahotsa izango baitira. Gainera, gure museoan azalpenak emateaz gain, irteeretan ere parte hartuko dute.

Aurikularrak museoan erabiliko ditugu, gidak denentzat ez daudenez, aurikularren bidez museoko erakusketaren berri izan dezakegu, aurikularretatik informazioa entzungo baitugu.

Teknologia berrietara ere egokituko garenez, wifia eta ordenagailuak ezinbesteko tresnak bihurtuko dira gure negozioan. Informazioa eguneratzen joateko erabiliko dugun iturri nagusia izango da. Gainera, web orri bat ere sortuko dugunez (negozioaren informazioa eskaintzeko, museo eta irteeretako sarrerak saltzeko,..), beharrezkoak izango dira. Beste bat, eraikuntza izango da. Bertan kokatuko dugu museoa, bertatik antolatuko ditugu irteerak, gure bulegoa ere hor egongo da.

Turismum